

Autoitzulpengintza

A

xun Aierbe, *in memoriam*.

Ezer gutxi gogorazi diezaguke ustekabeko heriotza batek adina, apurka-apurka umezurtzago bihurtzen gaituzten gertaeraz beteta daudela gure egunak. Norbait joan da eta erantzun gabe utzi zenizkion e-mailak ikusten dituzu bat-batean, hark egindako azken txiste eta hitz joko malgu bezain jostariak harriaren pisua hartzen dute derrepente —eta bizitzaren traza izaten jarraitzen dute, hala ere—.

Mahaian dauzkate argialetxerik topatzen ez duen nobela madarikatu baten gaztelarazko itzulpenaren gainean arkatzez egin zenizkidan ohar zorrotzak: ortotipografia, estiloaz, hitz bat edo beste erabiltzearen egokitasunaz... Ez zen xehetasunik ihes egiten zizunik. Liburua, irakurlea, idazlea. Triangelu horretatik atera gabe elkar eza-gutu eta norbere mainak eta maniak sintaxiaren bidez zehatz-mehatz elkarri erakustea zer den. Elkar ezagutzea, aditza esaldiaren hasieran edo bukaeran jartzeko joeraren arabera.

Autoitzulpengintza zen zure gaietako bat, horretaz hitz egitera gonbidatu ninduzun Gasteizera. Gauza bat idaztea baita, eta beste bat oso ezberdina idatzitakoa egileak berak beste hizkuntza batean paratzea. Idazleak nobela bat idazten duenean nobela on bat idatzi nahi du eta kito. Baina itzulpena egiten duenean, nobela ona eta itzulpen ona izatea ez zaio aski: itzulpen horrek *bere antza* izan dezan nahi izaten du. Edo ezta hori ere: berak bere buruaz duen irudi idealizatuaren antza izan dezan. Itzulpena margo ezberdinekin egindako jatorrizko koadroaren erreproduktzioa bada, autoitzulpena autoerreturatu da (autoerreturatu tranpatia, gainera). Egilea kritikoa da orain, eta utzitako azalean sartu baino, azal berri bat asmatu nahi luke, orain bera erosoago sentitzeko. Idazle edo ez, denok dugu autoitzultzaile bat gure baitan:



DANI BLANCO

egindako ekintzak, gure iragana, edozer gauza hitzetara itzultzen dugunean.

Norbere burua itzultzearen ariketak bel-durrezko ipuin hura ekarri izan dit beti gogora: naufragatu ondoren irla bakartu batera heltzen den zirujau harena. Zirujauak ez du zer janik irla horretan, eta naufragiotik gauza bat baino ez du salbatzerik izan: bere kirurgilari tresneria. Bere ogibideak giza anatomiaren ezagutza erabatekoa


ematen dionez, sobera ere ezagutzen duenez zein den giza gorputzak bizirik jarraitzeko premia ez dituen atalen segida, eta ondotoxoki dakienez erauzirik min gutxien egiten dioten gorputz adarrak zeintzuk diren, apurka-apurka eta bisturia lagun, bere burua jaten joango da, bizirik eutsiko badio irla horretan. Ogibide hitzak erabateko zentzua hartzen du kirurgilariaren kasuan.

Halaxe autoitzultzailea ere, bere (li)buruan saihetseko eta alboragarri diren guztiak atzeman nahian, norbere mamuak kudeatzen, haiekin elikatzen. Hitzaldiaren izenburua zein izango zen galdetuz idatzi zenidan. Nire iradokizuna: “Nola sartu bisturia bizirik dagoen apo bati, apoa norbera denean”.

Handik astebetara, Gasteizera trenez nindoala, ikaslezurtz geratu ziren gazteei zer esango nien asmatu ezinik, otu zitzaidan ez garela ezer inguruan irakurle zorrotzik ez badugu. Eta otu zitzaidan halaber, hizkuntzaren akademietako besaulkiak betetzen dituzten akademiko txit gorenak dauden bezala, geure buru barruan irakurle birtualen biltzar ttipi bat ere eduki behar genukeela derrigor, eta neure baitako biltzar mental horretan aulkirik ez zaizula aurrerantzean ere faltako. Halakoxeak gara: fikzioak kontsolatzen gaitu.

Batzuek estiloa deitzen diote, baina umezurtzasunari aurre egiteko tresna bat beste-rik ez da. ■

« Gasteizera trenez nindoala, ikaslezurtz geratu ziren gazteei zer esango nien asmatu ezinik, otu zitzaidan ez garela ezer inguruan irakurle zorrotzik ez badugu »



irudia:

Antton Olariaga